



SAILBURUA
LA CONSEJERA

Segurtasun Sailak jaso berri du **ETA-REN MEHATXUA DELA ETA (1990-2011), ERTZAINEK ETA HAIEN FAMILIEK JASOTAKO BIDEGABEKERIARI BURUZKO TXOSTENA.**

Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eskatuta, azterlan hori Deustuko Unibertsitateko **Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak** egin zuen.

Azterlanaren egileek Terrorismoaren Biktimak diren Ertzainen eta haien Senitartekoen Elkartearen (**ASERFAVITE**) laguntza izan dute, hainbat ertzain eta haien senitarteko batzuek zuzenean parte hartu dute beren lekukotza emanez, eta Sailaren laguntza ere jaso dute, azterlana osatzeko nahitaezko datu batzuk eman dizkielako.

Segurtasuneko Sailburua naizen aldetik, eskerrak eman nahi dizkiet, lehenik eta behin, **Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari** eta azterlana egin duten **Deustuko Unibertsitateko** ikertzaileei, ETArek mehatxu etengabeak, hainbat urtez, Ertzaintzaren gainean eragin dituen ondorioak lehen aldiz aztertu dituztelako eta horietan sakondu ere bai.

Halaber, bereziki eskertu nahi dut **Terrorismoaren Biktimak diren Ertzainen eta haien Senitartekoen Elkarreak (ASERFAVITE)**, azterlana martxan jartzeko

El Departamento de Seguridad acaba de recibir el **INFORME SOBRE LA INJUSTICIA PADECIDA POR EL COLECTIVO DE ERTZAINAS Y SUS FAMILIAS A CONSECUENCIA DE LA AMENAZA DE ETA [1990-2011]**.

Se trata de un estudio realizado por el **Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto**, por encargo de la **Secretaría General para la Paz y Convivencia del Gobierno Vasco**.

Los autores del estudio han contado con la colaboración de **ASERFAVITE, la Asociación de Ertzainas y Familiares Víctimas del Terrorismo**, con la participación directa de ertzainas y familiares que han aportado sus testimonios y con la ayuda del **Departamento** con la aportación de algunos datos necesarios para completar el estudio.

Como **Consejera de Seguridad** quiero agradecer, en primer lugar a la **Secretaría General para la Paz y Convivencia** y a los autores del estudio, investigadores de la **Universidad de Deusto**, el que, por primera vez, hayan indagado y profundizado en las consecuencias que la amenaza continuada de ETA durante tantos años ha tenido en el conjunto de la Ertzaintza.

También tengo que agradecer, muy especialmente, la estrecha e imprescindible colaboración de **ASERFAVITE, la Asociación de Ertzainas y**

eta egiteko prozesu osoan zehar, **Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin** zein azterlanaren egileekin izan duen lankidetzak estua eta, aldi berean, ezinbestekoa.

Baina, batez ere, txostena egiteko prozesuan zuzenean, zuen bizipen pertsonalak kontatuz, bizitako esperientziak eta jasandako sufrimendua gogoraraziz eta ETaren mehatxuak arlo pertsonalean eta familia- zein lan-arloan eragindakoa gordin-gordin hitzez adieraziz, parte hartu duzuenoi nire aitortza eta nire esker ona adierazi nahi dizuet .

Nire ikuspuntutik txostena inflexio-puntu garrantzitsu bat da.

Txostenak, lehen aldiz, testuinguruan kokatutako eta behar bezala sistematizatutako kontakizun kolektibo bat ematen digu, eta horrek zailtasunez betetako zuen iraganaldi horretara hurbiltzeko aukera ematen digu, urte luzez jasan behar izan dituzuen mehatxu, jazarpen eta minez betetako lehenaldi horretara.

Hortaz, lehen ahalegin sendoa da ertzainek eta haien senitartekoek, mehatxu horren biktimak ziren aldetik, jasan behar izan duten sufrimendu bidegabekoa ezagutu eta uler dadin, eta euskal gizarteak ere hobeto ezagutu eta uler dezan.

Familiares Víctimas del Terrorismo, en todo el proceso de puesta en marcha y elaboración del estudio, con la **Secretaría para la Paz y Convivencia** y con los autores materiales de la investigación.

Pero, sobre todo, quiero expresar todo mi reconocimiento y mi más sincero agradecimiento a quienes habéis participado directamente en el proceso de elaboración del informe, aportando vuestras vivencias personales, rememorando las experiencias vividas, el sufrimiento soportado y verbalizando, en toda su crudeza, el testimonio de lo que la amenaza de ETA supuso en lo personal, en lo familiar y en lo profesional.

Desde mi punto de vista, el informe constituye ya un punto de inflexión importante.

Nos aporta un primer relato colectivo, debidamente contextualizado y sistematizado, que nos permite acercarnos a ese pasado de dificultades que habéis tenido que soportar por tantos años de amenaza, hostigamiento y dolor.

Representa, por tanto, un primer y sólido esfuerzo por tratar de conocer y comprender, y hacer que también la sociedad vasca conozca y comprenda mejor, el injusto sufrimiento padecido por el colectivo de ertzainas y su entorno familiar, como víctimas de esa amenaza.

Txostena inflexio-puntu garrantzitsu bat ere bada; izan ere, jasotzen dituen lekukotasunen bitartez, errealitate horri aurre egiteko zuen adorea, nekeak eta konpromisoa azalerazten ditu eta Ertzaintzak Euskadiko bakearen alde lan handia egin duela aitortzen du.

Horrez gain, benetan uste dut ekarpen positibo bat dela Ertzaintzaren identitate-ezaugarriak are gehiago, hori posible bada, indartzen baititu: zerbitzu-bokazioa; herritarrekiko hurbiltasuna; talde-lana; erantzuteko gaitasuna; eta bizikidetza seguru, libre eta demokratikoa bermatuko duzelakoan, euskal herritarrek egunero zuengan guztiongan jartzen duen konfiantza bizirik mantentzeko konpromiso profesionala.

Txostena **GURENET**-en daukazue eskuragarri, baina erosotasunagatik txostena inprimatuta esku artean izan nahi baduzue, lasai eskatu zuen Unitateko Burutzari. Ahal bezain laster helaraziko dizuegu.

El informe también marca un punto de inflexión importante porque, a través de los testimonios que recoge, pone en valor el tesón, el sacrificio y el compromiso con los que habéis afrontado esa realidad y reconoce así la contribución de la **Ertzaintza** a la paz en Euskadi.

Creo, además, sinceramente, que constituye una aportación positiva para fortalecer, si cabe, aún más, las señas de identidad de la **Ertzaintza**: vocación de servicio, cercanía a la ciudadanía, trabajo en equipo, capacidad de respuesta y compromiso profesional para mantener viva la confianza que la ciudadanía vasca deposita cada día en todos vosotros y en todas vosotras en favor de una convivencia segura, libre y democrática.

Tenéis ya acceso al informe en **GURENET**, pero, si os resultara más cómodo tener a mano el informe impreso, no dudéis en solicitárselo a la Jefatura de vuestra Unidad. Os lo haremos llegar en el plazo más breve posible.



Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz
Segurtasun Sailburua / Consejera de Seguridad
Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 25a